

Gazte Barri jantza taldeak XIII. Dantzari Txiki Eguna antolatu dau

13. orrialdea

Mendia Igorreko Kultur Etxean

Ganzabal Mendi Taldeak *Mendi Amesgarriak* ikusentzunezko zikloa eta *Mendirik Mendi* argazki erakusketea antolatu ditu. Hilaren 7an, Oscar Cadiach; 8an, Silvia Vidal; 14an, Jordi Tosas eta 15ean Alex Txikon izango doguz Lasarte Aretoan. *Mendirik Mendi* argazki erakusketea, barriz, hilaren 4tik 19ra egongo da erakusketa gelan. 11. orrialdea



Korrika bazkaria Igorren 9an eta Korrika jaia 15ean Zeanurin

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

140

2011ko apirilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Nekazaritza ekologikoa, etorkizunera begira

Lehen Sektoreak pisu txikia dauka Bizkaian, apur bat handiagoa Arratian.

Modu industrialean eta kanpotik ekarritako produktuak ezin izan dau konpetidu baserriak. Dana dala, leku askotan jentea ez dago ados konsumiduteko modu horregaz. Konsumitzaile batzuk prezioari baino, kalidadeari eta ekoizleen lan-baldintzari hasi dira begiratzen, eta taldeetan antolatzen dabiz jateko ekologikoak eskatzeko.

Eskaera horri erantzuten deusien ekoizleak badagoz Arratian. Produktua salduko dabela bermatuta, zer erein edo zenbat produzidu planifiketan dabe eta holan soldata eta lan-baldintza duinak lortzean dabez. Konsumo taldeak barriz, urietan eta soloetatik urin dagozan herrietan antolatzen dira

batez be. Arratian ez dago apenas.

Izan be, hemengo jentek produktok azoketan eta baseritarrai zuzenean erosi ahal deusaz eta kimika bako jatekoak lortzea badago. Ha ta guzti be, batzuk hasi dira antolatzen modu jasangarrian konsumiduteko.

EHNE sindikatuko Nekasare egitasmoak produktoreak eta konsumo taldeak lotzean ditu. Gurean, badagoz Nekasareren partaide diranak, baita beste alkarteen bidez produktu ekologikoak merkaturatzea lortzean dabezanak.

Nekazaritza ekologikoak etorkizuna ekarri deuto baserriari eta ekintzaile gazte batzuk bizimodua ateratzen dabe Lehen Sektoretik.

8. eta 9. orrialdeak



Arratian ortuari ekologikoak produziduten dira.

AREATZA

Ingurumena hobetuteko eta mobikortasun jasangarrirako proiektuak

Mobikortasun jasangarria bul-tzatzeko, lhoberen idea lehiaketan aurkeztutako *Car Free* Areatza proiektua onartu zan eta martxan ipinteko % 70eko diru laguntzea izango dau Udalak. Eta auto pribaduak beteta erabilteko *Car Sharing* proiektua be ipini gura dabe martxan. Hau danau, urri lehenengoan, mobikortasun asterako egotea espero dau alkateak.

Ganera, Areatzako berdegune sarea osotuteko Iturrimorron parke etnografikoa egiteko asmoa dago. Fase bitan egingo da hau, lehenengoan azpiegiturea ipiniko dabe eta bigarrenan elementu etnografikoak horniduko dabe parkea. 6. orrialdea

IGORRE

Udala goi-tensinoko linearen kontra

Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik pasauko da Gueñes eta Itsaso arteko goi-tensinoko linea. Horren kontra, hainbat ekimen egin ditue Igorren: konzentrazioa, berbaldia eta alegazioak, bai herritarrenak baita Udalarenak be. Ganera, Udalak herritarren 382 alegazio eroran zituan Gobernuaren ordezkaritzara eta konprometidu egin da herritarri informazioa emotera. 7. orrialdea



IGORRE

Aurrekontu barriak onartu dira

Martiaren 28ko Udalbatzan ago batez onartu ziran 2011ko Igorreko aurrekontuak. Alkatetzak lehenengoz aurkeztu zituanak atzera bota zituenez, azkenengo asteetan Udal taldeak bildu eta danontzat onargarriak diran aurrekontu barriak prestatu dabez eta onartu egin dira. 5. orrialdea



LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOIAK
URBANIZAZIOAK

Errukiñe 4 - 48143 Areatza (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 · Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

KANTU HERRIKOIAK

PARROKO JAUNEK

Parroko Jaunek de[au]ko obligazinua
danari ema[o]teko ona lezinua,
harek emon ba neusten ona lezinua
enaua hartuko nik matrimoniuia.

Ezkondutuz gero bost gona nintuen
bi prenda jarri eta bi saldu nintuen,
sonian de[a]ukadana guztiz da ba zaharra
barriek egiteko esperantza txarra.

Gizonak ez du[dau] eiten, ez du eiten besterik
tabernara joan eta horditu besterik,
ai! handik etorteko ai! nire bildurra
noz izingo ete dodan bizkarrean egurra.

Plazan eder ta galanta ezkondu artian
gero egon in bihar suite bazterrian,
plazan eder ta galanta ezkondu artian
neu bere halan nintzan denpora batian.

Los mosos de Bizkaia eta probintzia
antes de casar pensar zer dan buzterria,
si buscáis como ella[os] zuen ezkongai
para vosotras será despatugarria.

Iturria: Paule Mendibil Uriarte (Zeanuri 1922-
1984).

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki La-
rrakoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

Parroko Jaunek

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Martiaren 28tik apirilaren 3ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

Apirilaren 4tik 10era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Apirilaren 11tik 17ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gazte Informazio Bulegoa

94 673 62 51 eta 639 018 133

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor, Juanjo Respaldiza, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Igorreko lehenengo Bardintasun Plana dala eta

Abenduak 20ko Udal Bilkuran Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako 1.º Udal Plana onartu zan. Dana dala, eta harri-garria badirudi be, ez zan onartu plan hori garatzeko ezinbestekoa dan lehen ekintza. Hau da, plana aurrera eroango dauan zerbitzu teknikoaren kontratazioa. Horren atxakian zerbitzua amankomunaua izan behar dala esan eben Udal zerbitzua Igorren eskeintzearen kontra agertu ziran partidu politikoak.

Herritarrak osotutako Batzorde Eragilea udalerrian bertan jardungo dauan zerbitzuaren alde agertu da planaren eztabaida prozesuan eta holan geratu da islatuta planean bertan be. Eba-

tzi hau adostasunean eta parte-hartzean oinarritutako ebatzia izan zan. Ha ta guzti be, PNV eta Igorre Danontzat-ekoak, modu unilateralean, Batzorde Eragilean hartutako ebatziari uko egin eta zerbitzua mankomunitadetik eskeintzearen alde agertu dira. Honegaz, planaren gauzatzea mankomunitadearen parte diran beste Udalen eskuetan geratzen da. Eta jakin badakigu Arratian holango ebatziak hartzea ez dala egun batetik beste-ko kontua izaten.


Bien bitartean plana geldirik dago eta momentuz, 2011n zehar aurrera eroan behar diran 28 ekintza bertan behera gelditu dira. Honen guztionen aurrean gure itauna zera da: Noz arte etxon behar dogu plana martxan ipinteko?

IGORREKO BARDINTASUN PLANEKO BATZORDE ERAGILEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

Txirri-txirria



Euskera batuan *kilker* izenaz ezagutzen dan insektu honen sasoia heldu da, udabarria. Gure txirri-txirriari heldu jako, azkenik, bere burua harro erakusteko ordua. Izan be, Arratiako Hiztegiaren lehenengo edizioan, txirri-txirri berbearen ondoan datorren argazkia ez da txirri-txirriarena, saltamatxinoarena baino.

ERETXIA

Nuklearrik? Ez, eskerrik asko

Gizakia, arduratsua, zintzoa, ganorazkoa, burutsua, langilea, prestua, azkarra da? Energia nuklearra lango teknologiak defendiduten dabezanak hori holan dala uste dabe: sano teknologia arriskutsuak dira, eta uste osoa daukie gizakiak ondo jokatuko dauala, ez dauala huts egingo. Baina askotan huts egiten dogu, *errare humanun est*. Zer-gaitik jarri zituen Fukushima sei zentral nuklearrak bata bestearen atzetik itsasoaren ondoan eta itsas mailan tsunamiak guztiz ezagunak diran herrialde baten? Tsunami berbea japoniarra da. Zelan da posible hainbeste eta hainbeste miloe gastau inbersino horreetan, hainbeste teknikari eta ikerlarik plangintzetan parte hartu eta holango hankasartze handia egitea? Kontuak Homer Simpson dakargu burura, egia esan.

Horregaitik teknologia seguruak behar doguz, nahiz eta sekulako hankasartzeak egin, ondorioak larririk ez dirala izango segurtatzen dabezanak. Adibidez, energia barriztagarriak. Energia eolikoa, eguzki fotoboltaikoa eta termosolarra, ura berotzeko eguzki plakak, geotermikoa, biomasa, itsas olatuen energia, itsas mareena, ekologikoki onargarriak diran bioerregaiak, energia hidraulikoa... danen artean % 100ean barriztagarria izango dan eredu energetiko barria sortu behar dogu.

Hau ez da amets bat, ez da utopia bat. Lehenengo eta behin energia konsumoa murriztu behar dogu, ezin dogu orain arteko moduan jarraitu. Azken hamarkadotan energiaren salneurria oso merkea izan da: petrolio kupela 10-15 dolarretan izan dogu urte askotan, eta oso merkea dana askotan ez dogu baloretan. Honen ondorioa energia xahutzea izan da eta energia xahutzea gure kulturari sartu da. Modu askotan ganera:



XABIER ABIAN SUESKUN

Ekologistak Martxan

konsumiduten doguzanean... eta hainbat eta hainbat alorretan. Ekologikoki bideragarria dan gizarte baten, gaur egun konsumiduten dogun energiaren erdia konsumidu beharko geunke, eta hau, gaur egun daukagun bizi kalidadea gitxitu barik. Hau da, energia gitxiago konsumiduz hobeto bizi gaitkekez.

Gaur egun estatu espainiarreko zortzi zentral nuklearrak, konsumiduten dogun elektrizidatearen % 20a sortzean dabe. Hurrengo hamarkadan energia aurrezteko plangintza zorrotzak eta serioak martxan jarriko balira % 20 eta % 30 artean aurreztu geinke eta bitartean zentral nuklearren zarratukerea mailakatua antolatu.

Madrilgo Complutense Unibertsitateko ikerketa batek (*España Global 2020-2050*) esaten dau estatu espainiarrean hornikuntza elektrikoaren aldetik zentral nuklear barik lasai bizi gaitkezelara arazoizko epe baten, epe labur baten.

Estatu espainiarrean igaz konsumidutako elektrizidade guztia- ren % 35a energia barriztagarria izan zan, %16a parke eolikoetan sortua. Euskal Autonomiadun Erki- degoan elektrizidade barriztagarri oso gitxi sortzean dogu, baina Nafarroa lango adibiderik ez dago Europa osoan. Igaz Nafarroak konsumidutako elektrizidadearen % 80a energia iturri barriztagarrietakoa izan zan, gehiena eoliko. Dana dala, Nafarroan termikak eraiki dira Erribera aldean, koherentzia bako politika bat bultzatuz.

Itxi behar dan lehenengo zentrala Garoña da: diseinatu eben berrogei urtetarako eta bete dau bere bizi- tza, nahiko kaltetuta dago denporearen podesuz eta Fukushima lehenengo erreaktorearen eredu bardinekoa da. Guztiz amortizauta dago aspalditik eta hori dala eta negozio handia da haren jaubeentzat, Iberdrola eta Endesarentzat, hain zuzen. Enpresa honeek urtero 180 miloe euro irabazten ditue. Negozio potolo hori gure segurtasunaren kontura egiten dabe, ostera.

etxeak eta eraikinen berotzean, klimatizetan eta argiztazetan, lan- tegietan, kaleak argitzeko orduan, garraioan, danetariko gauzak lar

Kendall Languages

Europa mailan sano ezaguna dan ingelerazko ziurtagiria lortu gura dozu?

zatoz Holan bada: %95eko arrakasta daukagu

Irakaslegoa oso prestatua dago eta gehienen ama hizkuntza ingelera da. Bagilean (ekaina) zentroan bertan egingo dan Trinity azterketara aurkeztu zintekez. Enpresetarako ingelera.

Kendall Languages, jentea prestatzen

Elxalde 4 behea
48.140 Igorre (Bizkaia)
94 657 73 48
www.kendall-languages.com

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Animalia
bakarra

Harri beraren ganean estropezu egiten dauan animalia bakarra gizakia ei da. *Masokismo* berbea be gizakioi lotuta agertuten jaku historian; ez dot uste animalia masokistatik dagoanik munduan, animaliak sufrimentuaren aurrean ospa egiten dabe, arin be.

Gizakiok, barriz, badakigu zer dan hondamendirik hondamendi ibiltea, aurretik daukaguzan esperientzietatik ikasi barik; itaundu baino ez dago Japoniako bizilagunai orain dala hirurogeitaka urte bonba atomikoa jaurti eutseenean zer jasan behar izan eben, eta gaur egun zer dabizan jasaten. Bien bitartean euki dogu Txernobileko esperientzia be, baina ez da nahikoa izan.

Harritzekoa da, mundu guztiko agintarien jarrera; guzti-guztiak energia mota horren alde egin dabe-eta. Eta bat-batean, ara-

zoa sortu danean kaka fraketan agertu jakuz danak. Orain zentral nuklearren etorkizuna eta eraginkortasuna zalantzan jarri dabez, baina betiko harri berberaren ganean estropezu egin osten. Dana dala, arazo hau sortu arte zer erizpide erabili dabe, ba, horren aldeko apostua egiteko? Garbi dago ez dabela ganorazko erizpiderik erabili, holango arazo batek ekarri leikezan ondorioen aurrean begiak itxi baino ez dabe egin, eta etekin ekonomikoari baino ez deustie erreparau.

Baina zein izan da ondorioa? Alde batetik, Japonian edateko urik be ez daukiela, ortuariak kutsatuta, itsasoko urak eta arrainak kutsatuta; bestetik, ikusten ez badogu be, ganetik pasauko jakun hodei erradiaktiboa, eta danok iruntziko doguna.

Bitxia da baina, lehengo astean (martiaren 13tik 20ra) egunkari guztietan barri nagusia Japoniako zentral nuklearren arazoa zan arren, asteon (martiaren 21etik 27ra) ia desagertuta dago egunkari eta barri emonkizunetatik. Kasualidadea ete da, ala kausalidadea? Nik neuk, inozotxua nazen arren, ez dot uste kasualidadea danik; begiak estaldu gura deuskuezala uste dot, ez dagigula pentsau, eta agintari ganorabakook agora emoten deuskuena iruntzi dagigula.

Adi, baina, danok; eurek agora emoten ez badeuskue be, Japoniatik jatorkun hodeia danok iruntzi beharko dogu-eta.

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Titi esnea labaintzen
jatzun moduan

Ez dakizu ezer ilargiaz, hodeiez, kilkerrez, beste gurari batzuk dekozuz orain begi borobilokaz begiratzen dostezu neuri erantzun guztiak nigan dauz eta, antza.

Ez dakizu ezer gerraz, gosez, heriotzaz beste beldur batzuk manejatzen dozuz orain altzoaren beroagaz nahikoa dekozu lasaitzeko iluntasuna ez da horrenbesterako amaren ondoan.

Gogorra da bizitza gaixoa zoragarri ankerra esne haginekatz egingo dotsezu koska hortzoiak urratu artean eta titi esnea labaintzen jatzun moduan egingo jatzu odola ta oingo moduan egin gureko dozu negar baina ahaztuta eukiko dozu nola.

Gogorra da bizitza, bai,

baina erabilgarri izango jatzuz gero ere taupadak musuak eta laztanak kantak, irriak eta besarkadak erabilgarri izango jatzuz, baita, mozorroak itsasontzi eta banderak murrak, ezpatak eta laser izpiak beldur emango dizu gero ere iluntasunak eta belarriak handiegiak izango dira beti edo tikerregiak edo gorriegiak edo zurbilegiak.

Izugarria da maitemina bihotza zoragarri ankerra arroz azalarekin egiozu aurre sabela urratu artean eta titi esnea labaintzen jatzun moduan bota gureko dozuz murr guztiak behera eta masailak gorritu arte egingo dozu orduan negar neuk irakatsiko dotsut zelan.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Eskolea izan zan sasoi baten orain Txoko Intxaur-bizkar deitzean dan eta argazkian ikusten dogun etxea. 1922an, Dima eta Igorreko jentea batu zan auzo eskola hau sortzeako eta funtzionamentuan egon zan 1969 arte gitxi gorabehera. Ez da meritu makala! Orduan baserritarra izateko ez zan estudio handirik behar eta.

Eskola haretan ibilitakoak batu ziran San Jose egunean eta mokautxu bat jan eta tragoxka bat edan bitartean ekarriko eben gogora duda barik eskolan bizi izandako umetako kontuak.

Han egon ziran andrazko edo gizonen batek baino gehiagok gogoratuko eban, seguru asko, inoiz eskolara ez zala joan "porque itaurrean", edo egin behar zan "cristiano" a jakin ez, eta euskeraz berba egitearren hartutako egurra. Baina baita leiduten ikastearen emozinoa eta lehenengo lagunak egindako gaiztakeriak be.

Gauza batzuk ez dira ahazten denporea pasau eta gauzak aldatu arren.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com


Ortodontzia
 Implantateak
 Estetika
 Marina Urigoitia Aiderkoa
 Odontologia
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bikala
 T. 94 631 50 39
 Nafarroa Zerbaita 110
 R.P.S. 21/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA
 Iñaki
 Martín Garastija
 Ubideratzeak
 Lurrerauzketak
 Baso pistak
 Ur Putzuak
 Era guztietako hondeaketak
 Bº URIBE - 48144 ZEANURI
 e-mail: margoiza@euskolnet.net
 Tel. 607 272 424
 610 271 128
 Tel/Fax: 94 433 22 28

IGORRE

2011ko aurrekontuak adostu eta onartu dira

Martiaren 28ko Udaltzatzen 2011rako aurrekontuak onartu ziran ago batez.



Igorre goitik ikusita.

Honeri esker, alkatetzak aurrekusten zituan proiektu batzuk egin ahal izango dira, ez danak, ostera.

Gastu sozialari jagokonean, umeentzako eta nagusientzako diru partidak handitu egin dirala dino alkateak; gazterientzakoak, barriz, murriztu. Bardintasun Planak geldirik jarraituten dau onartutako dirua ez dalako teknikari bat kontratatuko lain. Merkataritza eta ostalariarentzako diru laguntzak apurtu bat hazi egin dirala dino Olibaresek.

Urigintzan hiru lan nagusi

Aurrekontu honeek urigintzako hiru lan nagusientzako diru partidak aurrekusten ditu. Lehenengo, lehendik onartuta egoan Garakoiko zubirako izango da. Beste biak barriak dira. Holan eskoletako aterperako eta Sabino Arana urbanizetako dirua onartu zan aurrekontu honeetan.

Erredakzioa

Aurreko astean Udaltzateak bildu eta aurrekontu barri batzuk prestatu zituen, danantzat onar-

garriak diranak. "Inor ez dago % ehuneko ados, baina gixienerakoetara heldu gara, erdibide batera" azaldu deutso BEGITURI Galder Olibares Igorreko alkateak.

AREATZA

Areatzako Udaltzateak gas fakturen argibideak eskatu deutzaz Industria Ministerioari

Erredakzioa

Areatzako Udaltzateak bat egin dau Udaltzateak erakutsitako haserrea eta kezkeagaz, azken gas fakturatan kobratuak dirutzeagaitik. Hori dala-eta, argibideak eskatu deutzaz bai zerbitzuaren homitzailea dan Cepsari, bai Industria Ministerioari.

Azken ordainagiriak kezkatu egin dabe Udaltzateak. Nahiz eta herritarrek esan antzeko konsumoa egin dabela fakturen zenbatekoak nabarmen igo dira. Horregaitik, Udaltzateak hartu-emonetan jarri dau enpresa operadoreagaz. "Azaldu deuskue martiako fakturan aurreko urteko aldi berean baino konsumo-egun gehiago fakturatu dirala. Horrek eta BEZaren igoerak azaltzen dabe,

neurri baten, fakturazionan izandako igoerea", azaldu dau Areatzako alkateak dan Josu Basozabalek.

Dana dala, Udaltzatek 2011ko eta 2010eko urtarteako fakturak alderatuta prezioaren igoerea % 30ekoa izan dala dino. "Aurreikuspenen arabera, gasaren prezioak behera egingo dau, baina gogoratu behar dau prezioak ez dituala operadoreak ipinten, Gobernu zentralak baino. Gasa oinarritzako produktua da, eta eragina dauka familien ekonomietan. Holan, Gobernuak sentiberatasun handiagoa erakutsi behar eban, oraindino gehiago, Udaltzateak ahalegin garrantzitsua egingo dauanean Udaltzateak tasak eta zergak bere horretan ixteko", adierazto dau Basozabalek.

IGORRE

Kultur ekintzak

Erredakzioa

Apirilaren 6tik 17ra, musika, antzerkia eta beste kultur ekitaldi askoren eskeintza izango dabe igorretarrak hamabostaldi honetan Udaltzateak eta Arratia Institutuak antolatuta. Aitatzekoa, bere originaltasunagaitik, hilaren 16an, egongo dan zarzuelea *Los Gavilanes*. Institutuan be hainbat ekitaldi egingo dira.

Ganzabal Mendi Taldearen urteroko *Mendi Amesgarriak* ikusentzunezko zikloa eta Korrikaren inguruko ekitaldiak Kultur hamabostaldiaren egitarauan sartzen dira. Holan, hilaren 7an, 8an, 14an eta 15ean, goimendizale famaduak aurkeztu ditu Alex Txikonek Lasarte Aretan.

Apirilaren 8an, 12:30ean institutuko ikasleentzat eta herritarrentzat Ganoraz Euskera Elkarteak antolatuta Laburbira film laburren emonaldia egongo da Lasarte Aretan.

Apirilaren 9an, Korrika bazkaria eta 17:00etan eta 19:00etan Arratiako Musika Eskoleak *Udaberri festa* ipuin musikala eskainiko dau. Martitzenean, hilak 12, historiaren eguna izango da eta 18:00etan, Igorren zehar "Igorreko historia ibiltaria" eza-gutzeko aukerea izango da Angel Larreagaz batera. 13an, eguaztena, 19:00etan, Iñaki Perurena harrizatzalea eta aktorea egongo da *Harri eta herri* ikuskizunagaz. 15ean, barikua, Arratiako Korrika Txiki, eta lehen esan dogun moduan, Mendi Amesgarrien azkenengo saioa. 22:30ean, *Sekula bai!* antzezlan. Hurrengo egunean, zarzuelea *Los Gavilanes* 20:00etan Kultur Etxean eta amaitzeko, apirilaren 17an, Donostiara Korrikaren amaierara.

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTSULTAN ✓
ONDASUN HIRIGIZENEN ASBOKUETAN ✓
Sabino Arana, 3. Floor. 94 673 77 41 - Fax: 94 673 94 01 - 48140 IGORRE

AKETEGLIA
GAY & LORA
IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a Tel: 94-673-70-87
Igorre: 48140 Bizkaia Tel: 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agirre, 11 bis. • 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 62 34 • Fax 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ERREKONA
619342133
errekona@hotmail.es www.errekona.com
Burdin lan orokorrak. Balastradak, hesiak, burdin estrukturak, balkoiak...

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo • 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Erreka Garrantioak
Mugihorra 629 465 335
Branche auzoa, 12 LEMOIA
Tfnua: 94 631 50 02 Fax: 94 631 51 01

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AREATZA

"Ume bat zuhaitz bat" kanpaina

Erredakzioa

Aurten Basoetako Nazinoarteko Urtea dala eta, Areatzako Udalak "Ume bat, zuhaitz bat" kanpaina ipini dau abian. Holan, aurreko urtean seme-alabaren bat euki daben familiak zugatz bana lan-

datu eben Sakramentinoen parkean, martiaren 26an. Hamalau umeren familiak euki eben auke-ra hori.

"Umeak eta zugatzak senitartu gura doguz, inguruneaganako sensibilizazioa lantzeako. Aurten hasi gara, baina hemendik aurrera urtero egin gura dogu" azaldu deutso BEGITURI Josu Basozabal Areatzako alkateak.

Arbolak landatu ostean, arbolen ondoan plakak ipini zituen, non arbolaren izena euskeraz, gaztelaniaz eta latinez agertzen dan, eta umearen izena, gurasoak baime-na emon badabe. Gero, jaitxu bat



Areatzazarrak zugatzak landatuten.

egin zan, hau ospatuteko.

Hamalau ume jaio ziran Areatzan

Aurreko urtean 14 ume jaio ziran Areatzan. "Mila biztanleko 9 edo 10 da batz bestekoa. Areatzan 1.200 biztanlera heldu ginan igaz, beraz batz bestekoa baino apur bat altuagoa da Areatzako jaiotze-tasa" esan eban Basoza-

balek.

Ingurumenaren aldeko sensibili-zazio ekimen honek arrakasta handia izan dauala ezarri dan leketan dino alkateak. "Aurten hasi garanez, batzuk penaz egongo dira kanpoan geratu diralako. Baina, akaso, egunen baten egingo dogu modua gura daben areatzaztar guztiak euren arbola euki daien".

LEMOA

Kultur etxea eraigiteko lehenengo pausuak

Erredakzioa

Udalak 41.000 euroko partida aurreikusi dau zentroaren aurre-proiekturako. Lemoako Udalaren gobernu-taldeak (EAJ) urte amaiera bitarteko aurrekontua onartu dau. Besteak beste, diru-partida bat ebatzi dau herriko kultur etxearen proiektua diseinetako. Eraikin hori JB Eguskiza Meabe ikastetxearen eta kiroldegia ondoan egingo da.

Horrez gainera, Udalak beste aurrekontu-partida batzuk zehaztu ditu herriko hainbat azpiegitura hobetzeko; euron artean, ugerlekuaren hobekuntza-beharrak eta Herradura auzoko urbanizazioa. Ganera, 50.000 euro aurreikusi dabez hemigunetik urri dagozan auzoetako buzoiak ipinteko.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gas
Airebatazko sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Sutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07
Tel/Fax 94 672 62 76
919 736 616
48142 Igorre Biltzaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

AREATZA

Diru laguntzak ingurumena hobetuteko proiektu birentzat

Erredakzioa

Car Free Areatza proiektua aurkeztu eban Areatzako Udalak Eusko Jaurlaritzako-lhoberen Berringumena ekimenak sortutako idea lehiaketan eta honek onartu eban. Holan, proiektua martxan ipinteko aurrekontuaren % 70eko diru laguntza emongo deutso Jaurlaritzak Areatzako Udalari.

"Auto batzuk egongo dira eskuragarri eta erabiltzaileak eskatu beharko dau erabili gura dauanean. Txartel baten bidez eta sistema informatiko batez hartu ahal izango dira autok eta erabili ostean kobrauko jako zerbitzua erabiltzaileari" dino Josu Basozabal Areatzako alkateak.

Beste modalidade bat be badago, car sharing deritxana. Hau da, autoa konpartidutea. "Helburua autoaren eserlekuak betetzea da. Horretarako, baten batek egin behar dauanean biajeraren bat, jakinarazoten dau erabiltzaile komunitadean" azaldu dau Basozabalek. Hauxe berau saiatzen da mankomunitadea egiten bere

webgunearen bidez, baina orain arte ez dau arrakasta handirik izan. Dana dala, Areatzan arrakasta handiagoa izatea espero dau alkateak. Proiektu hau hurrengo hileotan lantzean has-tea espero dabe urri lehenengoan, mobikortasunaren astean martxan ipinteko.

Helburua autoa gitxiago erabilt-tea da eta "txitean-pitean erabiltteko gaur egun etxe askotan egiten dan moduan, bigarren autoa ez erostea".

Iturrimorron parke etnografikoa

Ez bakarrik autoen erabilera ahalik eta gehien murriztea, Areatzako Udalak berdegune sarea osatu gura dau herriaren. Horretarako Iturrimorron parke etnografikoa, ingurunearen eta didaktikoa egin gura dau. BFAK aurrekontuaren % 60eko diru laguntza emongo dau.

Parkeari balio etnografikoa emon gura deutse Udalekoak "kirikiñausie", "perratokia" eta bolalekua ipiniz. Ganera, "parkea ugerlekuakaz lotuta egon leiteke, pasabide baten bidez". Parke hau egiteko fase bi egongo dira. "Lehenengoan azpiegitura egokituko da eta bigarrenan gai etnografikoak ipiniko dira" dino alkateak.



Iturrimorroko parke etnografikoaren plano.

2011 LABUR BIRA
FILM LABURREN VIII. ZIRKUITUA

MARITU 2010 SP 17'35"
ARTALDE 2010 SP 18'
ONDAR ANOAK 2010 SP 17'35"
SINTALDEA 2010 SP 17'
ESKU TITI 2010 SP 17'35"
BLANK POSTCARDS 2010 SP 18'
IRAK DAT 2010 SP 17'35"
BARBORA BEGIRA 2010 SP 17'35"
NIRE DISTA FAVORITA 2010 SP 17'35"

KAMERATOIA 2010

EGUNA ...apirilak 8, barikua ...**ORDUA** 12:30ean
LOKUA ...Igorreko Kultur Etxea
ANTOLATZALEA ...Ganoraz Arratiako Euskera Taldea

belagorri

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakoentzat elkagaiak
estelizena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

HERRIKO BENTA

HOSTAL

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (BIZKAYA)
Tel. 94 631 72 56

ARRATIA

Aldaketak BEGITUN zenbaki honetatik aurrera

Erredakzioa

Zenbaki honetan aldaketa batzuk sartu doguz gure aldizkaria hobetuteko asmoz. Kantu herrikoiak, komikia, sormenerako atal bat eta Arratiako berbak bultzatzeko "Geure Berbategiaren leihotxua" sortu dira gure aldizkarian. Ikasleen txokoak eta denpora-pasak lekuz aldatuko dira.

"Geure Berbategie"ren ordez, Kantu herrikoiak saila dogu 2. orrialdean. Bertan, Ruper Lekuek jasotako kantuak agertuten dira partitura eta guzti. Dana dala, "Geure Berbategie" ez da aldizkaritik guztiz desagertzen eta 3. orrialdean "Berbategiaren bentanea" izeneko sailean, *Arratia Inguruko Hiztegiaren* egileak bultzatu gura daben berbak agertuko dabez.

Laugarren orrialdean, barriz, "Egi batzuek aixetarutzen" sailak

"Zertzean" izena hartzean dau eta sail honetan ez dira bertsoak bakarrik aterako, sormenerako txokoa bihurtuko da. Holan, "Poemak, irudiak, mikroipuinak eta bertsoak agertuko dira bertan. Jente barriak be idatziko dau eta irakurleak argitaratu ahal izango dabez euren lanak" dino Iñigo Iruarizaga BEGITUKO kudeatzaile eta Zuzendaritza batzordekideak.

"Dunba" izeneko ikasleen txokoa eta denpora-pasak lekua aldatuten dabe. Holan, "Dunba" 13. orrialdera pasau da eta 15. orrialdean, denpora-pasak eta komikia izango doguz.



ZEANURI

Udal gimnasio barria martxan

Erredakzioa

Zeanurin, udal gimnasio barria erabilten hasi dira herritarrek.

Gimnasioa estaduko inbersino fondoko diruagaz egin da eta funtzionamentuan dago pasa dan hiletik. Gimnasio barria zabal eta argitsua da eta irisgarritasuna bermatzen dau. Bertan, erretiratuentzako gimnasia, yoga, aerobic-a eta beste ikastaro eta kirol jarduera batzuk egiten dabez zeanuriztarrek.

BEDIA

Aprilaren 1etik, funtzionamentuan dago Bedian Jandoniz adinekoen egoitza.

Adinekoentzako egoitza inaugurauta

Erredakzioa

Inaugurazino ekitaldia martiaren 30ean izan zan eta bertan, erakundeetako ordezkariak eta Bediako herritarrek egon ziran. Egoitzak 50 lagunentzako lekua dauka. Pribadua izan arren, Noelia Murias zuzendariak espero dau leku batzuk Foru Aldundiaz konzertatzea.

Laga kontrol sistema

Egoitza Bediako erdigunean dago, eleizearen parean, kamino ondoko etxe barrian, "lehen Mallibi fabrika" egoan lekua. Eraikuntza abanguardistea, modernoa eta eguzkitsua da eta azkenengo teknologiak dago hornituta" dinoe Jandoniz egoitzako arduradunak.

Egoitza honetan, "lehenengoz mundu osoan" Laga kontrol sistema ezarri da. Eskumuturrean ipinitako aparailu batez, edozein momentutan non dagoan personea jakin ahal izango da, beste gauza batzuen artean. Holan zerbitzuaren kalidadea hobetutea eta erabiltzaileen autonomia bermatzea espero dabe Jandonizen.



Jandoniz egoitza.

IGORRE

Goi-tensinoko lineararen kontra herritarren 382 alegazino aurkeztu ditu Udalak

Erredakzioa

Martiaren 26an, Igorreko Udalak aurkeztu ebazan Bizkaiko Gubernuaren ordezkarietan, goi-tensinoko linearen kontrako herritarren alegazinoak. Aurreko egunean, Alberto Frias, Lurra eta Autopista Elektrikorik ez! Plataformako berbaduna egon zan Kultur Etxean, zergaitik ez dan beharrezkoa linea hori eta zeintzuk diran ekarri daitezkan kalteak azaltzen.

Beharrezkoa ez eta osasunarentzat kaltegarria

Gubernuaren ordezkarietan aurkeztutako alegazinoak 382 herritar eta alkartek sinatu eta Udalak eroan zituan.

Lehenengo alegazinoak, "jentaurrean jarritako proiektuak ez du justifikaziorik eta egiazta daitezkeen datu objektibotan ez da oinarritzen" dino. Izan be, gaur egungo instalazinoakaz eskaereari erantzutea ziurtatuta dagoala esan eben Frias eta Marañonek.

Bigarren alegazinoak ingurumen-inpaktu onartezinak deskribiduten ditu; hiru garrenak, personeren osasunean izango dituan "kalte larriak" aitatzten ditu; laugarrenak, izango dauan inpaktu sozio-ekonomikoaz, batez be lehen sektorean, jarduten dau; bosgarrenak, energia eredu hau ez dala eraginkorra dino; seigarrena, "proiektua erretiratzea eta 0 hautabidea"ren ganean da eta zazpigarrenak proiektuak gizarte-errefusa daukala dino.

Udalbatza goi tensinoaren kontra

Auzia martiaren 28ko Udalbatzara eroan zan eta hiru ebatzi hartu ziran. "Lehenengoa, herritarrai informazioa emon eta alegazinoak egiten lagunduteko konpromisoa. Bigarrena, Udalak bere alegazinoak be aurkeztuko dituala eta hirugarrena Udala goi-tensinoaren linearen kontra dagoala" azaldu deutso BEGITURI Igorreko alkateak.



Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitetz zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkartek ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

35€ 55€ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

PINTURA TAILERRA

areatza
pintura y decoración, s.l.

Pintura lanak
Goi mailako dekorazinoak
Industrialia
Fabkadak
Papereztatzea

eskatu aurrekontua konpromiso barik

Tallerra 94 426 16 58
639 769 780 - 629 435 895

BASAURI

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Konsumo modu barriak baserria gura dabe

Baserriko bizimoduari arnasa emon deutso nekazaritza ekologikoak. Izan be, gizarteak hainbeste produktu kimiko bako elikagaiak eskatzen ditu eta ekoizleak, zuzenean salduta, gaurko bizimoduari eusteko lain ateratzen dabe.

Erredakzioa

Sasoi baten, kantitatea produzi-dutea zan merkaduan egoteko modu bakarra eta horretarako esplotazino handiak eta ongari kimikoak erabili behar ziran, lurra

eredu industrial baten ustiatuz. Baina, konsumitaile batzuk hasi dira kezkatzen produktu kimiko horreek osasunean egin leikien eraginagatik eta antolatuten hasi ziran, produktu ekologikoak zuzenean lortzeako. Gaur egun, neurri



Dimako arrautzak Getxon saltzean dabez.

Arratian, zuzenean eta azoketan be saltzean dira produktu ekologikoak

Nekazaritza ekologikoak ez dau produktu kimikorik erabilten eta erritmo naturalak errespetetan ditu

Konsumo taldeak ekoizleai produkzioa planifiketako aukerea emoten deutsee

baten behintzat, esplotazino txikiak lortu dabe leku bat merkaduan nekazaritza ekologikoa eta konsumo taldeai esker.

Nekazarien eta bezeroen arteko konpromisoa

Egia esan, Euskal Herriko baserri tradizionala beti izan da ekologikoa: esplotazinoak txikiak ziran, ez zan erabilten produktu kimikorik eta dana aprobetxetan zan, hondakin egin barik. Gure tradizioan sartzean da nekazaritza ekologikoa, beraz.

Dana dala, momentu baten baserriak ezin izan eban lehiatu kanpotik ekarritako produktu merkeak eta sano egoera larrian egon da urte askotan eta oraindino be badago.

Ha ta guzti be, modu ekologikoan ekoiztua izateak balio erantsia emon deutso produktuari azken urteotan eta lortu dau lekutu bat merkaduan.

Nekazaritza ekologikoak tratamendu toxikoak erabilten ez dituan da. Jakietan zein naturan hondakin kimikoak ixten dituen tratamenduak ez dira erabilten produkzio modu honetan, erritmo naturalak errespetetan dira hazkundera arintzeko berogailuak ipini barik, eta hazi ekologikoak erabilten dabez ekoizleak eta ez ongari sintetikoak. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoko Kontseiluak ikuskatzen ditu esplotazinoak ziurtatzeko produktu kimikorik ez dabela erabilten eta ongaria, hazia eta landarea ekologikoak dirala.

Gurean be, badagoz modu ekologikoa aukeratu daben ekoizle batzuk eta gehienak EHNE sindikatuak bultzatutako Nekasare egitasmoaren barruan biltzean dira. Nekasarek batzean ditu produktoreak eta konsumo taldeak, ekoizleai euren produktuak salduko dabezala ziurtatuz. "Ekoizleak modu ekologikoan (zigiluagaz) edo horretan sartzeako ahaleginetan egin behar dabe lan. Produkzio ereduari jagoko-

nean, baserrien antzekoak izan behar dira, ekoizpen txikiak, beraz, eta hortik bizi behar dira ekoizleak lan-baldintza eta soldata duina aterata. Konsumitaileai urtebeteko konpromisoa eskatzen jakie" azaldu deutso BEGITURI Areatzako Asterriabioko Sonia Ingunzak.

Ingunzaren esplotazinoak gutzira 7.000 m² ditu. Horreetatik, 720 m² negutegian eta 4.000 m² kanpoko soloan erabilten ditu. Bere produkzioa da batez be, tomatea (2.500 kilo), letxugea, piperra, kalabazea, kalabazina, patatea, babea, leka, zerba, porrua, berakatza eta kipulea.

"Produkzioaren % 80 Nekasareko konsumo taldeetara doa. Gainontzekoa esplotazinoan bertan saltzean dot, edo udako azoka ekologikoetan (Busturia, Elorrio, Astrabudua, Errekalde...)" dino Ingunzak.

Aitziber Emaldik barazkiak eta arrautzak ekoizten ditu Diman Leitoki izeneko esplotazinoan. 3.500 m²ko ortua dauka, 100 oilo, kiwiak eta frutu txikiak zugaxkak. Nekasareren bidez arrautzak saltzean ditu. Barazkiak, barriz, bere bezeroai etxetik bertatik, eta udan Dimako plazan domeketan. "Nik Diman daukadaz bezeroak eta plazan saltzeaz ganera, otzarak egiten dodaz barazkiak, ogia eta arrautzakaz" azaldu dau Emaldik.

Barazkiak bakarrik ez

Nekasareren bitartez, konsumo taldeak ez dabez barazkiak bakarrik erosten. Idea, modu ekologikoan ekoiztutako ahalik eta jakerik gehien eskeintzea da. Arratiako ekoizleen Nekasareko konsumo taldeak Getxo eta Bilbon dagoz. Han, Areatzako barazkiak, Dimako arrautzak eta Zeanuriko ogia eta okela ekologikoa erosten dabe.

Hasibarria da Xiber Uriarte okina proiektu honetan. "Oraindino esplotazinoak izenik be ez dauka. Astean 200 eta 300 ogi bitartean egiten dodaz, momentuz. Denporea aurrera joan ahala, gehiago egitea eta txarriak be ipintea es-

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegioak, Hezkuntza zikloak

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igoerre

Tfnoa: 94 631 80 04

ellaURI HOTEL
Naturazko ospitaleritza

Landa Turismoa
Erpinak Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com



Ogi ekologikoa urun ekologikoagaz egiten dana da.

pero dot" dino Uriartek.

Nekasareko konsumo taldeak erosten dituen Arratiatik kanpo ekoiztutako beste produktu ekologiko batzuk oilaskoa, mermeladea, gaztaia eta esnea dira.

EHNE sindikatuko Nekasare ez da, dana dala, produktu ekologikoak merkaturatzen dituan alkarte bakarra. Beste alkarte batzuk be badagoz. Bitor Arbe "Patxoa" Areatzakoak, berbarako, Aroa ardao ekologikoko mahastietan egiten dau behar. Mahastiak Zurukoain herrian dagoz, Lizarratik 6 km.ra. Ardo ekologikoa ekoizteko, han daukiez mahastiak eta upategia. "Ardoaren banaketea ezinezkoa zan eta horretara dediketan zan Laket-Aroa alkar-tean hasi nintzan" azaldu deutso BEGITURI Arbek.

Konsumo taldeak

Nekazaritza ekologikotik bizimodu aterateko bezeroak bermatutea ezinbestekoa da eta merkadu tradizionalen produktu honeek ezin dabe lehiatu modu ez ekologikoan ekoiztutakoak merkeagoak diralako. Konsumo taldeak bentajak dakarrez ekoizleentzat "prezio duinak lortzean doguz, pentsau eta planifikau ahal doguz urteko ereiteak, komertzializazioa ziurtatuta daukagu, ezagutzen doguz jentearen gustuak eta hartu-

emon zuzena eta hurrekoa mantenduten dogu. Konsumo taldeak 30 bat etxetarako dagoz pentsautu. Nik 12 daukadaz Bilbon eta 34 Getxon" dino Ingunzak. Horregaitik, ekoizleak konsumo talde batzuei saltzean deutsee euren produkzioaren zati bat.

Dana dala, konsumo taldeen filosofiaren barruan ekoizlea eta konsumitzailea ahalik eta hurbilen egotea dago. Nekasaren, baina, ez dago Arratiako konsumo talderik. Nekasaren bakarrik ez, Arratian ez dago apenas konsumo talderik, fenomeno barria da hau. Izan be, konsumo taldeak, batez be, landa eremuak ez diran lekuetan sortzean dira.

Konsumo taldeak, konsumo arduratsua egin gura daben talde autogestionatuak izaten dira eta helburua, bertako produktuak

eta ez munduko beste puntatik ekarritakoak -jakien % 85 atzerritik ekarten da- eta modu ekologikoan ekoiztuak konsumidutea da.

Zeanurin, dana dala, badago 12 etxek osotuten daben talde bat. "Gauza asko, Arratiako produktoreai erosi ahal deusaguz, baina modu ekologikoan ekoiztutako frutea behar genduala eta batzuk animau ginan talde bat sortzera" azaldu deutso BEGITURI Lur Olabarririk, Zeanuriko konsumo taldeko partaideak. Idea bertako produktuak konsumidutea zan arren, momentuz enpresa banatzaile baten bitartez egiten dabe.

Jateko ekologikoak eta hurbilekoak gura dabez ekoizleai lan baldintza onak ziurtatuz konsumo taldeen partaideak. Konsumo arduratsua egin gura dabe, beraz.



Lehen Sektoreari arnasa emon deutso ekoizteko modu ekologikoak.

Konsumo arduratsuaeren filosofia

Bertako produktoreai produktu ekologikoak erostea konsumo arduratsuaeren ekimen bat da, baina ez bakarra. Konsumo arduratsua gehiago da.

Bigek (Bizkaiko Gurasoen Elkarteak) konsumo arduratsua erakusten dau eskoletan. Paloma Migliacciok, konsumo arduratsua teknikariak holan definituten dauz konsumo arduratsua eta honegaz lotuta dagozan bidezko merkataritza eta jarrera arduratsua.

Konsumo arduratsua zer da?

- Pentsautako konsumoa, konzientea.
- Beharrezkoa edo garrantzitsua besterik ez.
- Ingurunean eragin gitxienekoa.
- Ekoizleen lan esplotaziorik sustatzen ez dauana.
- Bidezko merkataritza.

Bidezko merkataritza

- Ekoizleen eta erosleen arteko komunikazioan oinarritzen dan mertaritza hartu-emona da.
- Produktua ekoizten daben personentzat soldata eta lan-baldintza duinak bermatzen ditu.

Jarrera arduratsuaeragaz konsumidutea, zer da?

- Beharrezkoa edo garrantzizkoa baino ez konsumidutea.
- Tokiko produktuak.
- Sasoiko elikadura.
- Janari ekologikoa.
- Bidezko merkataritza.
- Konsumoa gitxitzea.
- Hondakinak birziklatzea.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea suzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharreen beharrez,
euskeraz eginez

Enbatarek
Batzen gaitu

MONDRAGON

GALANTA
Bametik janzteko
Zugandik saro hurbil

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

Bizkaifisios SLK
bi zentro ditu

Fisioterapia
Zentroa
Igorre

Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari
Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

FUTBOLA

Lemoa finalera

Maialen Egileor

Lemoa da historiako lehen euskal taldea Federazio Kopako finalera ailegatzen. Finalurrekoan buelta emon eutsan joaneko partiduko emoitzi eta 2-0 irabazi eban Caravacaren kontra Arlonagusian. Baina emoitza hori ez zan nahikoa eta, azkenean, penaltietan Lemoak egin eban aurrera. Orain Puertollano izango da finaleko aurkaria. Honeek lerroak idazten gabizen bitartean, joanekoa jokatu barik dago oraindino. Partidua eguenean, hilak 31 da eta bertan izango dira hainbat lemoaztar. Izan be, klubak doban ipini dau autobusa bazkideentzat. Bueltakoa, barriz, apirilaren 14an izango da Arlonagusian. Ligan, ostera, behera

egin dau Lemoak. Azkeneko bi partiduetan ezin izan dau irabazi asturiarren kontra. Lehenengo 0-0 bardindu eban Sportingegaz eta gero 0-1 galdu Oviedogaz. Holan, bederatzigarren da 45 puntugaz.

Arratia

Arratiako mutilak be partidu bat bardindu eta beste bat galdu dabe: 1-1 Urdulizen kontra eta 2-0 Gatikaren aurka. Baina euren egoerea txarragoa da, jaitsiera postuetatik bi puntura baino ez dagoz eta. Hamabosgarren dira 28 puntugaz. Euren lekutik mobidu ez diranak Arratiako neskak dira. Zazpigarren postuan jarraituten dabe, nahiz eta azken bi partiduak irabazi: 0-6 Ugeragagaz eta 1-0 Ugaogaz. 38 puntu daukiez orain.



Arratiako neskak azken bi partiduak irabazi dabez.

ERRUGBIA

Arratiko, lehenengo

Erredakzioa

Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak 14-35 irabazi eutsan Iruña RT-ri martiaren 25ean, zapatua,



Arratiko Zekorrek taldeko jokalariek.

Iruñan jokatu zan partiduan. Arratiarrak lehenengo postuan segiduten dabe eta apirilaren 9an jokatuko dabe ligaxka honetako azken partidua Uribealdearen kontra Igorreko San Txisme zelaian. Hau irabazita txapeldun geldituko dira.

Zekortxuak ostera galdu egin eben Uribealdearen kontra jokatutako azken partidua, 29-12 hain zuzen be. 4. dira sailkapenean.

LEHIAKETEAK

Artea Kirol Kultur Taldeak logo barria egiteko txapelketea antolatu dau

Erredakzioa

Artea Kirol Kultur Taldeak alkatereko logoa barizteko txapelketea antolatu dau. Parte hartu daikie Arteakoak zein beste herrietakoak, bazkideak izan ala ez. Maiatzaren 2ra arte bialdu ahal dira lanak arkikuta@gmail.com helbidera. Saria persona birentzako spa eta afaria Areatzako bainuetxean izango da. Epaimahaia AKKT-ko bazkideak osotuko dabe eta egilearen izena jakin barik aukeratu da irabazlea. Epaia maiatzaren 8rako emongo dabe.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea

Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26

48330 Lemoa (Bizkai)



Banatzaile
ofiziala















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

MENDIA

Puntako mendizaleak "Mendi Amesgarriak" erakutsiko dabez

Ganzabal Mendi Taldeak antolatu eta Alex Txikonek aurkezten duan proiektuzino zikloan, aurten Oscar Cadiach, Silvia Vidal, Jordi Tosas eta Alex Txikonen ikusentzunezkoak erakutsiko dira.

Erredakzioa

Gasherbrum I-etik etorri barri, Alex Txikonek aurkeztuko ditu beste mendizaleak bere lana

erakustez ganera. Dana dala, puntako mendizale honeek ezagunak dira gurean; Silvia Vidal, berbarako, 2008an be egon zan.

Kataluniako eta Euskal Herriko mendizaleak

Apirilaren 7an hasiko dira emonaldiak. Egun horretan Oscar Cadiachek eskeiniko dau *La otra*

cara del K2 dokumentala. Oscar Cadiach "laroegi urteetako harkadan "himalayismoa" aldatu eban belaunaldiaren partaidea izan zan, aktiboenetakoa ganera. Zortzi milako mendietan bide barriak zabaldu zituan eta sormen handiko estilo arina praktiketan dau" dinoe Desnivel-en. 2004an, "Magic Line" izeneko K2ko bide gaxetik igo zan Cadiach.

Hurrengo egunean, apirilaren 8an, Silvia Vidalen txanda da. Vidalek *Una pared virgen en un valle monzonico* ikusentzunezkoa eskeiniko deusku. Esandako moduan, kataluniarra 2008an egon zan ziklo honetan eta orduan *Ascension en solitario Shipton Spire* eskeiniko euskun. Aurtengoan, euripean eta bakarik horma baten pasautako 25 egunak kontetan ditu.

Apirilaren 14an, Jordi Tosas izango dogu Igorren. Alpinismoa, eskaladea, boulderra, snow-board... danetik egiten dau Tosasek eta *Un camino entre*

las piedras dokumentala erakutsiko dau. Bera be, K2 Magic Line 2004 espedizinoko partaide izan zan.

Alex Txikon lemoztarrak zarratuko dau zikloa apirilaren 15ean. *Annapurna. Shisha Pangma* izeneko proiektu arren, duda barrik, kontauko ditu baita be, bere azken abenturan bizi izandakoak, Gasherbrum I-eko espedizinon, hain zuzen. Ez dago programan, baina publikoak jakinmina izango dau seguru asko.

Martian, Alex Txikon, Gerfried Göschl eta Louis Rousseau saiatu ziran Gasherbrum I-era igoten, jakinda neguan sano gatxa dala. Eguraldiak ez eutsen emon aukerarik. Ia hilabete bertan eginda eta -40°C temperaturak sufriduta, ezin izan eben tontorra zapaldu.

Argazki erakusketea

Ganera, Kultur Etxeko erakusketa gelan, Ganzabal Mendi Taldearen Mendirik Mendi argazki erakusketea egongo da hilaren 4tik 19ra.

IGORREKO LASARTE ARETOAN ARRASTIKO SETAN

मेन्दि अमेसगार्रिाक

| | | | |
|---|---|--|--|
| <p>apirilak 7 OSCAR CADIACH</p> <p>"la otra cara del K2"</p> | <p>apirilak 8 SILVIA VIDAL</p> <p>"una pared virgen en un valle monzonico"</p> | <p>apirilak 14 JORDI TOSAS</p> <p>"un camino entre las piedras"</p> | <p>apirilak 15 ALEX TXIKON</p> <p>"annapurna shisha pangma"</p> |
|---|---|--|--|

Mendi Amesgarriak iragarten daben kartela.

ASESORIA Gorbeialde

Juridika • Fiskala • Lanekoa • Kontularitza

Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

SALTZEAN DA

Egin barria. Estreinatzeoko etxebizitza Lemoan: 50 m², gela bikotxa, horma-armairua, jangela, sukaldea beharrezko guztiagaz, bainugela, bideoatezaina, igogailua, gas naturala, sano eguzkitsua, bista ederrak eta trastelekua. Oso ondo komunikautu. Telf.: 658 743 657.

1. kupoia

BEGITUren zenbaki honetan eta hurrengo bietan aterako doguzan 3 kupoiak ebagi eta Areatzako bainuetxera joan ezkeroko % 15eko deskontua eukiko dozu.

Balneario Areatza
Areatza
Hesperia Areatza

begitu

> Eskeintza hau maiatzaren 31ra arte da baliogarria.

PADELA

Sahararen aldeko I. Padel txapelketea Lemoan

SAHARAREN ALDEKO I. PADEL TXAPELKETA

- **Data:** Apirilaren lehenengo asteburuan (apirilaren 2an eta 3an goizean) jokatuko dira partida guztiak, izen ematearen kopuruaren arabera.
- Binakako txapelketa izango da.
- **Jokatze tokia:** Lemoako kiroldegian.
- **Izen ematea:** 10 euro bikote bakoitza.
- **Izen emateko tokiak:**
LEMOAN: Kiroldegian
ZORNOTZAN: Urtza tabernan
- Izena emateko **azken eguna:** Apirilaren 1a.
- Materiala ekartzea eskertuko genuke, baina izango ditugu raketak eta pilotak

SARIAK

Irabazlea: Afaria + Kamiseta
Bigarrena: Kamiseta

ANTOLATZAILEA **LAGUNTZAILEA**

ASKATASUNAREN BIDEA ERABIZ

KiLan

Padel txapelketea apirilaren 2 eta 3an jokatuko da.

Erredakzioa

Menditik Desertura alkarreak antolatuta, apirilaren 2an eta 3an, Sahararen aldeko I. Padel Txapelketea jokatuko da Lemoan. Binakako txapelketea izango da eta bikote bakoitza 10na euro ordaindu behar

ditu izena emotean. Partiduak kiroldegian izango dira eta "parte hartzaileak materiala ekartea eskertuko geunke, baina eukiko doguz erraketak eta pelotak" dinoe antolatzaileak. Txapelkunak afaria eta kamiseta bana jasoko dabe sarizat eta azpitxapelkunak kamiseta bana.

KUKUA

Andra Mari martikoz ku-ku,
San Pedroz mutu

Udabariaren etorrera iragartzen deusku kukuak.

Jon Urutxurtu

"Ku-ku, ku-ku", nork ez dau eza gutzen kantu zeblebre hau? Duda barik, hegaztien munduan doinurik ezagunena da, eta ospe hori hizkuntza desbardineta txori hau izentatzerakoan islatzen da: kuku euskeraz, *cucou* gazteleraz, *coucou* frantsesez, cuckoo ingelesez...

Egutegi ofizialak udabariaren hasieraren martiaren 22an finkatzen badau be, baserriarrentzat kukuaren (*cuculus canorus*) kantuak iragartzen dau urte sasoi honen etorrera. Eta sinismen herrikoien arabera, "Andra Mari martikotik (martiaren 25a) zortzigarren egunean kukuak ez badator, bere ondra enterrua egin behar da".

Izan be, asko dira Euskal Herri osoan hegazti honen inguruko kontaketa, esaera eta sinismenak. Tradizioaren arabera, egoera ekonomikoan be eragina dauka txori bitxi honek, kukuak josten lehenengoz entzuterakoan poltsikoan txanponak daroazanari urte horretan dirurik ez ei jako faltako, baina une horretan txanpon barik badago, hurrengo udabarrira arte, behintzat, ez da aberastuko.

Biziaren iraupenagaz be zerikusia ei dauka kukuak; horregaitik atso-agureak kukuak noiz joko ardureagaz izaten dira, lehen kantua entzun ezkeror urte horretan heriotzearen bisitea ez gertatzeko segurantz osoak eskuratuko dabez eta. Urteetan aurrera doazenean negu aldean osasunez guztiz ondo ez dabilzanean, "ez dakit aurten kukurik entzungo dodan" esaten dabe, kuku-hotsa entzunda urte horretarako bizia ziurtatuta eukiko dabela adierazo guran.

Habia-bizkarroitz

Bere kantua ezaguna bada be, ezin da gauza bera esan bere itxurea eta bizimoduari buruz. Aitor Bengoak Elhuyar aldizkarian argituratutako "Kukuaren Habi-Bizkarroitz: Norgehiagoka Eten-gabe" artikuluan azaltzen dauan legez, kukuak hegazti bizkarroia da, hau da, bere kumeak beste espezie baten kontura hazten dauz, txantxangorria, txindorra, txepetxa, txamilotxa eta abarren habietan arrautzak ipiniz; hirurogei ostalaritik gora ezagutzen jakoz kukuari Europan.

Habi-jaubeen ausentzia aprobetxatuz ipiniko dau arrautzea kuku emeak ostalariaren habian;



Kukukumea tamainaz bera baino txikiago dan gurasordearengandik janaria hartzean.

arrautzak mimetikoak izango dira, hau da, neurri, kolore eta forman, haziko dauan espeziearen antzekoak. Egun bitxi behin erruten dabe, gehienetan arrautza bana habiako eta guztira hamabost jartera heldu daitezke. Ganera, ostalariarenean arrautzea itxi aurretik, habiako bat lapurtuko dau, holan kopuruan aldaketarik egon ez daiten.

Kukukumea habiakideak baino lehenago jaioko da eta ostalariaren arrautzak habiatik jaurti egingo dauz, holan lehiakideak kanporatzen dauz eta janari guztia berarentzat izango da. Egun gitxitan, gurasordeak tamainuan gainditu egingo dauz. Dana dala, benetako gurasoak ez dabez kumeak guztiz bertan behera itxiko, eta eltxoak eta beldarrak —berreziki prozesionaria— ehizatzen kanpora ateratzen hasi arte habia inguruan ibiliko dira.

Udabarriko kantua

"Ku-ku, ku-ku" kantu ospetsua arrarena da, emearena apala-

goa, baxuagoa eta ezozenagoa da eta. Baina udabarria uda bihurtu ahala, kuku-hotsa isilduz joango da, San Pedro inguruan desagertuz. Eta gertaera hau esaera herrikoiak biltzean dabe: "Kukuak egiten dau maiatzean ku-ku, garagarrean geratzen da mutu" edo "Andra Mari martikoz ku-ku, San Pedroz mutu".

Arratian esaten dan legez, "San Pedro jaietan, Zeanuriko Undurraga auzunean gosalduta, Arantzazun bazkaldu, eta Diman afaldu ostean Frantziara joaten da", hurrengo urtera arte bere arrastorik izango ez dogularik. Baina ez da Frantziakoa hegazti migratzaile honek hartzean dauan norabidea, Afrikakoa baino, negua paraje horreetako epeltasunean igarotzeko. Lehenengo, gurasoak abiatuko dira eta hilabete eta erdi inguru geroago kumeak —euren kontura eta ezelango gidari barik— izango dira Afrikako gunen tropikaletan amaitu dan biatzea hasteko prest egongo diranak.

KUKUA ETA TXAMILOTXA

Hortxe goiko haretxiditxo baten kukuak umeak egin jozak aurten

Kukuak egin, txamilotxak jan haixe bere kukuaren zoritxarra zan

KORRIKA KULTURALA

Korrika bazkaria Igorren eta Korrika jaia Zeanurin

Erredakzioa

Hilaren 16an, pasauko da Korrika Arratiatik eta Korrika Kulturalaren barruan ekintza bi doguz hamabostaldi honetan. Hilaren 9an Korrika bazkaria dago. Jai giroa eguerdian hasiko da, 13:00etan poteoa tritilariak lagunduta eta Gau Lora tabernatik abiatuta. 14:30ean bazkaria kiroldegian. Sarrerak Arratiako herrietan ohiko lekuetan erosi ahal dira jada eta joan gura dauanak arin ibili beharko dau sarrera gitxi dagozalako. Eta umeak disfrutetako, Zaztaparrak taldekoak eurentzako jokoak eta tailerrak antolatuko dabez. Bazkalostean, 17:00etan, Jokaldi taldearen musika jantza-zeko aukera izango da.

Korrika bezperan osteran, hilak 15, Korrika Txiki ospatuko da Lemoatik Zeanurira artean. Hori dala eta, Zeanurin Albakoa Guraso Alkarteak, Gazte Asanbladeak eta Arozok antolatuta jaia egongo da eguerditik gauerdira. Korrika txikia 12:00etan helduko da Zeanurira eta 16:30ean, txalapartea eta adarra, umeentzako tailerrak, magoa, euskaraokoa, jokoak eta txokolata egongo dira plazan. 18:00etan, Kukubiltxo taldeak, *Kukubel 2.0* ikuskizuna eskeiniko dau frontoian. Ordu berean, Arratiako gazteen futbito txapelketea jokatu da eta arrasti osoan zehar, euskerearen aldeko murala egingo dabe artista sentiduten diran guztiak.

Helduak be ospatuko dabe Korrika Txiki

Baina Korrika Txikiren jaia ez da bakarrik umeentzat izango. Helduxeagoak be eukiko dabe ospatuteko modua. Izan be, 19:30ean triki-poteoa egongo da herrian zehar eta 21:00etan Korrika afaria frontoian. Afariak sagardotegi menua izango dau 15 euroko prezioan. Sarrerak salgai dagoz Arratiako hainbat lekutan. Eta afalostean, bertsolariak, tritilariak, Gontzal Mendibilek, Esti eta Olatzek eta DJ Tibek ipiniko deusie musikea jaiari. Euskera saria eta zozketea be ez dira faltako.

Autobusa Areatzatik

Jolasetara zein afarirako joateko autobusa ipiniko dabe Areatzan. "Konpromisoa hartu dogu Zeanurin egiten diran ekintzak sustertzeko. Hori dala eta, Korrika Txikiren ostean antolatuten diran haur jolas eta ikuskizunetara joateko autobusa ipini gura dogu Areatzatik-Zeanurira. Zeanurin antolatzen dan afaria be joateko asmoa daukagu, eta azkenik Zeanuritik, Korrikeagaz bat egiteko Areatzaraino etorriko dan Korrika adarrari behar moduko ondo etorria egin behar jakola uste dogu. Beraz, musika edo bestelako ekintzaren bat antolatu gura dogu gau horretan" azaldu deus BEGITURI Mikel Urriz Areatzako Udaleko beharginak.

12:00etan Korrika txikia heltzean da

16:30ean txalapartea eta adarra
umeentzat tailerrak, eurpegi margoitzu, magoa, euskaraokoa, jokoak, txokolata denontzat

18:00etan Kukubiltxo: Kukubel 2.0 (frontoian)
antolatzen zehar euskerearen aldeko murala

18:00etan Arratiako gazteen futbito txapelketea

19:30ean triki poteoa herritik zehar

21:00etan Korrika Sagardotegia (15 euro)
bertsolariak, tritilariak, Gontzal Mendibil, Esti eta Olatz, euskera saria, zozketea, DJ Tibe

Afarirako txartelak leku honetan salgai Lemoa: Karabie Gaztebidean, Igorre: Axular Herriko Taberna, Kukubiltxo euskaltegian eta AZ Rugby Taberna. Areatza: Biker eta Motxo Tabernan, Zeanuritik: Txoko Sagaman eta Loli eta Leirenean, Obxandio Herrikoan eta Danonan.

Zeanuriko jaiko kartela.

JANTZAK

XIII. Dantzari Txiki Eguna Diman apirilaren 3an

Erredakzioa

Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak XIII. Dantzari Txiki Eguna antolatu dau hilaren 3rako. Beasaingo Hautzaka, Zeanuriko Arrikibar, Lemoako Durundi Barri eta Dimako Gazte Barri taldeetako jantzari gazteak batuko dira Diman eguna ospatuteko. Alkarregaz eguna paseteaz ganera, jantzan egingo dabe plazan eta frontoian bazkalduko dabe. Egunean zehar hauxe egingo da:

Egitaraua

11:00etan, jantzarien kontzentrazioa frontoian.
12:00etan, kalejirea.
13:00etan, goizeko ekitaldia plazan.
14:30ean, bazkaria frontoian.
16:00etan, erromeria JOKALDI taldeagaz.

LEHIAKETEAK

Film Laburren IV. Lehiaketea Igorren

Erredakzioa

Film laburren lehiaketea tradizio bihurtzen dabil Arratian. Igorreko San Antonio jaietan laugarrenez ikusiko dira Arratiako gazteak eta ez hain gazteak egingo dabezan film laburrak. Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatzen dau eta igorretarren artean euskerearen erabilera sustatu gura dau modu ludiko baten. Filma euskeraz izan beharko da eta gitxienez 2 eta gehienez 14 minutu bitarteko iraupena euki beharko dau. Baldintza horreez gain, egileak arratiarrak izan beharko dira. Gaia librea izango da, halanda be, epaimahaiaren esku egongo da filmaren bat lehiaketatik kanpo ixtea iraingari gertatu leitekeala ikusi ezker.

Lanak bagilaren 2a baino lehen, Igorreko Kultur Etxean entregatu beharko dira. Gutunazal itxi baten barruan filma sartuko da eta gutunazalaren barruan beste gutunazal itxi

bat filmaren eta egilearen datuakaz.

Kategoria bi egongo dira; 18 urtetik beherakoena eta 18tik gorakoena. Lehenengoentzako saria 300€ izango dira bonoetan eta 18 urtetik gorakoentzat bideo kamarea eta afaria.

Aurten film laburrak egiten ikasteko gazteentzako ikastaroa eskeiniko da Kultur Etxean. Apirilaren 4tik hasita eta maiatzaren 25era, astelehen eta eguaztenetan ordubeteko 12 saio izango dira doban; 16:45etik 17:45era. Izena Euskera Zerbitzuan edo Kultur Etxean emon ahal da.

Sari banaketea bagilaren 12an izango da 21:00etan eta epaimahia Arratiako ikus-entzunezkoetan adituak osatuko dabe.




BERTSOLARITZEA

BBK Sariketea, bertso gazteak

Juanjo Respaldiza

Igorren ekin eutsan bere ibilbideari aurtengo BBK Bertsolari Gazteen Sariketeak. Bizkaiko lurraldearen barruan, zazpi eskualdek jokaturen dabe lehiaketa honetan. Lehenengo saioan Arratia eta Bilboaldea lehiatu ziran, aretoa Arratia Institutuko ikaslezt beterik zala. Bertsolari gazteentzako sariketea da hau eta, era berean, entzule gazteak bideratuta dago. Bigarren hezkuntzako ikastetxeen inguruan antolatuten dira sailkapen saioak, parte hartzaileak euren ikaskideen beroan kantau dagien. Alde txiki bada be, Bilboaldeak eroan eban Lasarte Aretoan jokatu zan saioa. Eurak egingo dabe aurrera, finalurrera.

Talde bakotzak sei lagunegaz hartuten dau parte, hiru txikien mailan, 18 urte artekoak, eta hiru handietan, 24 urte artekoak. Arratiagaz txikietan Aitor



Bertsolariak Igorren.

Asua, Ander Gerrikaetxebarria eta Malen Amenabar izan ziran kantari, eta handietan Irati Astondoa, Manex Sagarna eta Illart Gumuzio. Arratia eta Bilboaldeaz ganera, Lea-Artibai, Enkarterri, Durangaldea, Busturialdea eta Ipar Uribe dira eskualde parte hartzaileak.

BBK da sariketa honen antolatzaile nagusia eta zeregin horretan laguntzaile ditu Bizkaiko Bertsotale Elkarte eta Bizkaiko Ikastolen Elkarte. Igazko edizioan Lea-Artibaik irabazi eban finala, ea aurten nok hartuten dauan saria finalean, Bilbon, apirilaren 14an jakingo dogu.

DUNBA

Dimako paisajeak

Dimako eskolea

Euskal Herriko eta Dimako paisajeak oso polita izaten jarraituten dabe. Betidanik izan da polita, baina aldatu, aldatu egin da apur bat. Gure arbasoak ikusten eben paisajea eta guk ikusten doguna sano desbardina da eta. Ez da paisajea bakarrik aldatu, baita bizimodua eta gure eguneroko ohiturak be. Gure aitita-amamak etxe atarian lasai olgetan eben, gu osteria, salbuespen batzuk kenduta, etxetik urten eta segiduan kamino eta autoakaz topetan gara. Sasoi baten baserriak ziran gehiago, gaur egun eraikuntza

handiak eta herriguneak dira nagusi, kamino gehiago, zugatz eta baso gitxiago, kutsadura gehiago... gizartearen aldaketeagaz eskutik helduta etorri da paisajearen aldaketea be.

Badakigu kaminoak beharrezkoak dirana, baina honek ez dau esan gura mendiak eta lurrik edozein modu eta neurritan apurtu behar diranik. Basoetan egiten diran pistak be kontrolau egin behar litzateke, baserrien eremuak errespetauz, beharrezkoak diranean bakarrik egin daitezala, eta zelan ez, animalia eta landaredia jagon eta maitatuz.



Dimako antxinako paisajea.

Erabilten dogun paper kantidea be handia da, baina ahalik eta gehien saiatzen gara birziklatzen, honegaz badakigulako ebagi behar dan zugatz kopurua txikiagoa izango dala.

Honako faktore honek aitatu daikeguz gure inguruko paisajearen aldaketearen eragile moduan:

Eraikuntza handiak, industrialdeak, kutsadura, kaminoak, harrobiak, gizakiaren eskuhartzea...

Guzti honetaz jakitun gara baina gure eskolan garrantzi handia emoten deusagu natura eta gure inguruari, holan, hainbat ekintza eta aktibidade erooten doguz aurrera. Lehengo astean "Sagarra" taldekoak izan genduzan gure eskolan, zugatz eta landareen ganeke informazioa emoten etorri ziran. Zugatz mota desbardinaren argazkiak ikusi eta honeen ezaugarrien ganean berba egin euskuen. Zugatz eta landare autoktonoak zein ziran esan euskuen, hau da bertokoak diranak, eta zein zugatz eta landare diran aloktonoak, hau da, kanpotik ekarritakoak. Euskal Herrikoak diran zugatzen artean pagoa, lizarra, gorostia, haretza, urritza, urkia, gereziandoa, gaztainondoa, intxaurrondoa, elorri zuria, sahatza eta haltza dagoz.

Gaur egungo landaredian aurkitzen diran espezie inbaditzaileez be berba egin euskuen. Espezie inbaditzaileak hemengoak ez diran landareak dira, eta honek zelan ailegau ziranaren azalpenak be emon euskuezan. Esaterako; Panpako be-

darra, pinua eta eukalipto. Modu bi dagoz espezie honek gure herrialdera iristeko: baten batek beste herrialderen batetik landarea ekarri eta hemen landatuta; edo istripuz, landareen baten hazia gure gorputzean edo arropan gura barik ekarri eta hazi hori zabaltzea. Baina ez gara gu bakarrik landare eta zugatz "kanpotarren" jakitun, zugatz honeetan ez dalako txorien kantarik entzuten, eta basoan dabiz aniamaliak be ez dabezalako landare inbaditzaileak atsegin. Pinua eta koniferoak ez dira ez gure lurraldeentzat lagunik onenak, eta kaltegarriak be izan daitezke, nahiz eta badakigun Ameriketatik ekarritako arbola honek erraz hazi eta egurgintzan asko erabilten dirana.

Azalpenak amaitu ostean, iritsi zan ikasitakoa praktikan ipinteko ordua, ze hobeto gure eskolan ikasle bakotzak landare hazi bat ereitea baino!! Holan, begiraleen laguntzaz bakotzak hazi bana erein genduan: urrak eta ezkurak, hain zuzen. Zortea izan genduan eguraldiagaz, "Lontxo" jauna geuri begira egoala irudian. Berreskuratze bidean, gure hazitegia, izan bedi adierazle bat baino zeozer gehiago!

Eta martiaren 15ean, "Zuhaitz Eguna" ospatu genduan. Dimoztarrok han izan ginan Dimolagainen. Eskola osoak hartu eban parte. Eguraldia kili-kolo portau arren, pare bat autobusetan segiduan izan ginan arbolak landatzen, besoak, atxurra eta sasoiak lagun, honako zugatz honek guztiak landatu genduzan:



Bertako Haretzak: 150; Pagoak: 230; Urkiak: 75; Haretz amerikarrak: 100; Lizarrak: 80; Gereziandoak: 70.

Bat aukeratu eta zeozer kontetearren hona gure "Sanjuan haretza"-Lizarrataz bi berbatxu:

Sanjuan haretzaren ezaugarrietariko bat, hostoak bata bestearen aurrean jaioten jakozala da. Lizarra itsasbaterrean zein mendi garaienetan bizi dan Euskal Herriko betiko zugatza dogu. Lizarren adarrak baserrietako atek babesteko jartzen dira Sanjuan egunean eta artzainak udan ardiak jaten emoteko be moztzen dabez.

Lan gogorra egin ostean "txixi-burruntzia" egin genduan, urdaigaz zahagiak bete... modu bikaina holongo ekintza bat amaituteko!!

Arbolak dira amasten dogun airearen garbitzaile lur zoruaren babesle eta zelan ez uren zaintzaile hegazitxoaren gotorleku ta haizeteen pantaila be bizitarako ezinbeste ta flora fauna eragile guzti hau gutxi balitz gainera klimaren diseinatzaile.

AGENDEA

**APRILAK 1
AREATZA**

20:00etan, Laburbira, film laburren emonaldia Udal Aretoan.

23:00etan kontzertua Bixer tabernan.

Jazz talde bat.

DIMA

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

ZEBERIO

19:00etan pelota partidua frontoian.

**APRILAK 2
BEDIA**

20:00etan, Usansoloko Orfeoia, Urduñako Abesbatza eta Muskizeko Oihartzuna abesbatza eleizan.

IGORRE

Lurrarin Rock, Gazte Asanbladak antolatuta.

20:00etan, antzerkia *Errautsak* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Sahararen aldeko Padel txapelketa kiroldegian.

**APRILAK 3
DIMA**

Dantzari Txiki Eguna. 11:00etan jantziarik batu frontoian (Ikusi egitaraua 13. orrialdean).

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea *Heroes*.

19:30ean, zinea *Mas alla de la vida*.

Kultur Etxean.

17:30etik 20:00etara jantzia Kultur Etxean.

**APRILAK 7
IGORRE**

Kultur hamabostaldia hilaren 17ra arte. (Ikusi egitaraua 5. orrialdean).

20:00etan, Mendi Amesgarriak, Oscar Cadiach *La otra cara del K2* Ganzabalek antolatuta. Lasarte Aretoan.

**APRILAK 8
IGORRE**

20:00etan, Mendi Amesgarriak, Silvia

**Mendirik Mendi Ganzabalen argazki erakusketa**

Apirilaren 9tik 14ra, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideak egindako argazkiak egongo dira ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Argazkiok 2010ean Ganzabalek antolatutako argazki lehiaketan parte hartutakoak dira. Modalidade bi egon ziran: "Ganzabaleko urteerak" eta "Mendia eta natura". Mendirik mendi ibili diranak kamareagaz harrapautako parajerik ederrenak Igorretik urten barik ikusi ahal izango doguz.

Vidal *Una pared virgen en un valle monzónico* Ganzabalek antolatuta. Lasarte Aretoan.

**APRILAK 9
AREATZA**

23:00etan Bixer tabernan Jabier Mañon umoristea.

BEDIA

15:00etan, trenz joateko, urteera Guggenheim museora. Alde bateko

erakusketa: *Kaosa eta klazisismoa. Artea Frantziar, Italian, Alemaniar eta Espainiar 1918-1936.*

IGORRE

Kino Mendi Taldea asteburuan Murillo de Gallegora (Huesca). Rafting eta kontzertuak.

Korrika bazkaria. 13:00etan, triki kalejirea Gau Loratik. 14:30ean, Korrika bazkaria kiroldegian. 17:00etan, Jokaldi.

17:00etan eta 19:00etan Arratiako Musika

Eskolarean ipuin musikala: *Udaberri festa*. Lasarte Aretoan

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak, Lemoatza (358 m.). Sari banaketak.

UBIDE

Korrika jaia. 17:30ean, taloak egin eta salduko dira plazan. 17:30ean, Mus txapelketa (12 talde baino gehiago apuntetan badira). Arrasti osoan plazan herri jokoak.

**APRILAK 10
ARTEA**

08:00etan, Artea Kirol Kultur Taldeak antolatuta Bikotzgan-Untzueta-Bikotzgan.

BEDIA

Urteera umeentzako, *Espalda seca* eta txapelen museo.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Secretariat*.

19:30ean, zinea *The Fighter*. Kultur Etxean.

17:30etik 20:00etara, jantzia Kultur Etxean.

LEMOA ETA ZEANURI

Ganzabal Mendi Taldea eta Joko Alai Alkarteak Lunadara urteera, Castro Valnera (1718 m)-Pico La Miel (1565 m).

**APRILAK 14
IGORRE**

20:00etan, Mendi Amesgarriak, Jordi Tosas *Un camino entre las piedras* Ganzabalek antolatuta. Lasarte Aretoan.

**APRILAK 15
BEDIA**

Korrika Txiki. 17:00etatik 18:30era, pankarta eta tailerrak. 18:30etik

19:00etara, ibilbidea plazatik. 19:00etatik 20:00etara, filma eta tailerrak.

IGORRE

20:00etan, Mendi Amesgarriak, Alex Txikon *Annapurna. Shisha Pangma* Ganzabalek antolatuta. Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:15ean, Arratiako Korrika Txikiren urteera eskolatik.

ZEANURI

Korrika jaia. 12:00etan, Korrika Txikia heltzean da. 16:30ean, txalaparta eta adarra, tailerrak, jokoak...

18:00etan, Kukubiltxoren *Kukubel 2.0* frontoian.

18:00etan, Arratiako gazteen futbito txapelketa. 19:30ean, triki poteoa.

21:00etan, Korrika afaria.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
SALTZEAN DOT**

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefona 635 007 632.

**LAN ESKEINTZA
BEHAR BILA**

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Klase partikularrak emoten dodaz maila guztietan, matematika, fisika, marrazketa teknika, eta abar. Ikasketa teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

ESTETIZISTEA BEHAR DA

Igorreko zentro estetiko baterako

estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**EROSI
EROSTEN DOT**

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Jon Etxebarria,
Ipiñaburuko artzainak,
emondako gaztai bana.**

Agurtzane Bengoa (Ubide)
Begoña Lapatza (Dima)



2

**Zeberrioko Ametzola
Landetxeak emondako
asteburu pasa.
www.ametzola.net**


Ander Ibarra (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Altxau. Astindu. 2.- Zori. Gehiegi. 3.- Bike. Olgeta. 4.- Soinu bat adierazoten dau. Omen. 5.- Letra bat. Landara mota bat. Letra bat. 6.- Harridura adierazoteko interjekzioa. Guzurrez ez dana. 7.- Entzute, ospe. Zirkonioaren sinboloa. 8.- Birritan, hortz-kirrinkaren onomatopeia. Burukeria. 9.- Txarra ez dana. Soldatea.

GOITIK BEHERA

1.- Zeruko jauna. 2.- Agur. Egon, izate. 3.- Zeozer erretzen danean. Tori, hartu egik. Ezetza. 4.- Oxigenoa. Jatorduan. Sufrea. 5.- Begiak itxita. Zilarra. Urmeen berbetan, mosua. 6.- Jaka. Berezko argia daukan astro. 7.- Gomutagarri.



Topau banderan kolore gorria daukien zazpi herrialderen izenak.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | S | P | E | I | K | O | A | L | E |
| B | O | L | I | V | I | A | P | O | S |
| E | K | U | A | O | R | E | G | K | T |
| M | A | D | R | I | R | L | A | E | O |
| A | S | T | I | U | B | A | R | R | A |
| K | U | Z | E | R | K | A | R | I | I |
| I | D | E | B | A | I | T | Z | O | P |
| T | U | I | Z | N | A | T | O | H | O |
| E | S | U | T | A | N | E | A | B | I |
| Z | O | Z | A | A | T | G | O | A | T |
| U | D | E | R | O | L | O | J | T | E |
| G | O | F | I | T | A | I | K | U | N |
| R | A | N | U | R | E | M | A | K | O |
| A | G | E | F | A | G | I | S | T | A |
| T | O | B | A | L | I | K | A | R | A |

AKI MI KO

Igor Menika



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Ordie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7.
48140 Igozpe (Bizkaia) Tlfnoa: 94 622 64 78

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• Aker • Gutsuiter • Arandiga
• Gaudole • Leiz • MaSspana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak 41, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tlfnoa: 94 673 71 32
48140 IGOZPE (Bizkaia)
garantxe@euskaltel.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskolaraz zein ordinaraz
Gabe, 10 - 48140 Igozpe (Bizkaia)
telefonoa 94 631 54 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: urakua@euskaltel.net

Hotel Brontze
Bilbo-Centrolor, 22 bisua
Telefonoa: 94 673 43 28 - Faxa: 94 673 43 28
9460 IGOZPE (Bizkaia)

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu

Dia % PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igozpe
Tel. 94 631 15 26

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

MERKA LABELA-HARATEGIA
Etxeko produktok
• Turrizok
• Oblestok
• Bostantzak
• Saltzitak
• Harbitzak
• ...
Arratiako produktok
• Baserriko akris
• Urtsak
• Baserriko arrautzak
• Turririkak
• Harbitzak
• Gorrika fruta eta berezirikak

ZEKUTZE
JATETXEA
Salino Arana, 34
48140 IGOZPE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Igozpe
BATZAR EGUNAK:
epaiztenak 20etatik 22etara
Udaletxeko arkapetan
EPA-ko lokalcan
KONTAKTATZENO TELEFONOA:
690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Herrikoak lekuak
Lehendakari Agirre 21
48140
94 673 43 27

LARREGI TALDEA

"Finalean gagozala jakitea, itzelezko sensazioa izan zan"

Gogotsu, barreka eta itzelezko ilusinoagaz igarri dau Larregi BEGITUK. Agiri-agirian dagoz taldea biziten dabilan nerbio eta emozinoak; izan be, Gaztea Maketa Lehiaketako finalean dago. Eskuarteau daukien proiektu baten eta etorkizunaren inguruan be berba egin dogu eurekaz.

Irati Urien

Ez dakianarentzat, zer da Gaztea Maketa Lehiaketea?

Urtero egiten dan Gaztea Irratiko Maketa Lehiaketea esango geunke Euskal Herrian dagoan lehiaketarik ezagunena dala. Argi dago gazteentzat sano garrantzitsua dala lehiaketa baten parte hartutea. Guk behin maketea eukinda pentsau genduan apuntea, oso eskaparate ona izan ahal dalako edozein talderentzat.

"Bide bat" abestia aukeratu dozue lehiaketarako. Zergaitik?

Gure kantarik zaharrena dalako. Azken baten hara artega zoaz eta ondoen dakiguna jotea pentsau genduan. Lagunen artean be ezagunena da eta errez sartzean dan kanta bat da.

Zein izan zan lehiaketearen inguruko ibilbidea?

Izena emoteko epea zezeil ingu-

ruan zabaldu zan eta maketatek entretetako hilabete bat egon zan. Guk internetetik edo telebistatik jakin genduan honen barri eta orain dala hiru aste edo jakinarazo euskuen finalean gagozala.

Finalean zagozela jakiterakoan, zelako sensazioa izan zan?

Bi lehiaketa dagoz: Maketa Lehiaketea bera eta Entzulearen saria. Zelan funtzionetan dau bakotzak, noz esango da irabazlea nor dan eta zein izango da saria?

"Larregi Arratiako

taldea Gaztea Maketa

Lehiaketearen finalean

dago"



Maketa Lehiaketearen saria epaimahaiak ebazten dau, entzulearena, barriz, botoen arabera da. Lehenengoan epaimahaiak erizpide batzuk kontuan hartuta talderik onena zein dan ikusten dau. Bigarrenean, ostera, jentek emoten dau botoa. Antza danez, aprilaren 13an esango dabe entzulearen saria nok irabazi dauan. Bestea be, egun horretan edo hor inguruan. Maketa Lehiaketeak dauka saririk potoloena: 6.000 euro, BBK Liven jotea eta bideoklip bat grabetea. Egia esan, sari hau egundokoa da baina oso gatxa da irabaztea. Maila handiko beste bederatzi talde ikusi doguz. Entzulearen saria irabazteko aukerea barriz handiagoa da. Berau 2.000 euroko saria da. Dana dala, dirua baino inportanteagoa da irabazte urtetan bagara horrek zer suposatuten deuskun. Lehen esan dogun moduan oso eskaparate garrantzitsu bat dalako zure izena hor egotea eta jakitera emotea, zabalduetea.

Badabil jentea Entzulearen sarirako botoak emoten?

Bai momentuz bai. Egun batzuk daroaz asuntu honek martxan eta lehenengo egunetik lehenengoak gara. Egia esan, lagun guztiai

txapea emoten gabiz, gure alde emoteko botoa esanez. Antza danez, jentea ondo erantzuten dabil, babesa erakusten deuskue. Dana dala, hasi baino ez da egin, 13ra arte denpora asko dago. Batek daki, buelta asko emon ahal dauz. Ikusiko dogu zer pasetan dan.

Zelango esperientzia zabize biziten?

Sano ona. Onena Mungiako Olalde aretora joatea izan da. Sano tratu ona emon euskuen: harrera ona, leku bat itxi euskuen probak egiteko... gure ganean egon ziran. Beste alde batetik, beste taldekoak hartu-emona egiteko aukerea be euki genduan.

Botoak emoten jentea inplikea be oso polita da.

"Bide bat" kantako esaldi batek "zein da gure azken helburua" dino. Zein da Larregiren azken helburua? Badauka azken helbururik?

Pentsetan dogu helburuak luzarora baino epe laburrera edo eraintera begira daukaguzala. Bide honetatik segidu gura geunke, taldea eta musikea bera ezagutzera emon. Batez be, kontzertu gehiengo jo eta Arratiatik apur bat urten gure dogu, izan be kontzertuen %

90 hemen inguruan emon doguz. Epe luzeago batera begiratuta barriz, beste grabazio bat egin gurako geunke.

Maketa Lehiaketatik aparte, sorpresatu bat be emongo deuskuzue laster...

Bai. Martiaren hasieran estudioa joan ginan eta Lemoako Gazte-teko urteurrenerako grabau genduan kantea barriro grabau dogu. Bere egunean ez ginan gustura gelditu. Kantea ona dala pentsetan dogu baina emoitza nahiko txarra izan zan. Oraingo honetan konbidau berezi bi eukiko doguz, nahiko pisutsuak: Amaiur taldeko Naroa eta Kop taldeko Juanra. Dana ondo badoa, laster Juanrak bere zatia grabauko dau eta aprila amaierarako prest egongo da.

Zergaitik emon behar dogu botoa zuen alde? Saldu zeun burua!

Kar, kar, kar. Arratiakoak garalako, irabazteko gogo handia daukagulako eta guk dakigula lehenengo aldia dalako bertako talde bat holango final batera heltezan dana. Badakizue, www.eitb.com/gaztea/maketa-lehiaketa/-ra sartu, bideoa ikusi eta emon botoa!

eskakizun bat...

... nire gurasoei ez zaiela ezer falta.

- Bedia udalherriaren erdialdean eta natur gune batetan estrategikoki kokatua.
- Komunikazio, zerbitzu eta prestakuntza ezin hobekak.
- Bilbotik 15 min. eta Galdakaoko Ospitaletik 2 minututara.
- Punta puntako teknologiaz osaturiko instalakuntzak.
- Mundu mailan Laga kontrol sistemaren lehen ezarrera.
- 15 urtetako esperientzia.
- Arreta pertsonalizatutako talde mediku multidiziplinarra.
- Gure nagusien zaintzan inplikatutako eta konprometatutako pertsonal kualifikatua...

...eta batez ere maitasunez, maitasun osoz.

JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia
tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

apirilaren 1^{etik}
zabalik